

AIARALDEA *hemen*



IVAN DE LA CRUZ:
“Herrian sakon errotutako ekimena da Mugagabe Trail Lasterketa” 18 or.

I. AZOKA SOZIALA:
Kontsumitzeko eta bizitzeko modu berriei zabaldu dizkie atea Ekintzen Faktoriak 5 or.



Emakumeen lana, aitortza lortzeko bidean



Nora Latatu Landaluze

AMURRIO 2
Istripua izan dute Alfredo Remirezen senideek Darocara bidean
Zaragozara zihoazen autoz, bertako Daroca kartzelara eramán baitute amurriarra

AIARALDEA 3
Zehaztu dute zein izango den maiatzaren 6ko herri kontsultako galdera
Aiaran, Arakaldon, Artziniegan, Amurrion, Laudion eta Okondon egingo da galdeketa

HISTORIA 6
Martxoak 3, Aiaraldeko langile mugimenduaren hazia
1976ko martxoaren 3an Gasteizen jazotako sarraskiaren eragina eskualdean

JENDARTEA 14
Eskualdeko nerabeen alkohol-kontsumoa, datutan
Galdetegiak egin dituzte Laudio eta Amurrioko ikastetxeetan

KIROLA 20
140 kirolarik hartuko dute parte Aiarako Biraren XXIX. edizioan
Ibilaldia egingo dute mendi taldearen lehen urteurrena ospatzeko

ZURE MARKARI BULTZADA EMAN

KAMISETAK, USB-AK, BOZGORAILUAK, ... BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU ///

NAHIERAN PERTSONALIZATUTA



GUREKIN ERE EUSKARAZI!



G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA JANTZI ZERBITZUAK MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Amurrio

Darocara dispertsatu dute Alfredo Remirez eta bere senideek istripua izan dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Zaragozan dago Alfredo Remirez, Amurriotik 382 kilometro-ra. Iragan ostiralean atera zuten Basauritik. Gaua Zuerako espetxean igaro ostean Daroca kartzelara eraman zuten preso politiko amurriarra.

Familiarekin hitz egiteko aukera izan zuen iritsi zenean, eta bost senide bera bisitatzea joan ziren igandean. Bidean, baina, auto-istripua izan zuten animalia baten aurka talka eginda, zauririk izan ez zuten arren.

Aste honen hasieran elkarretaratzeak egin dira Euskal Herriko hainbat txokotan, Remirezi aplikatutako dispertsio politika salatzen.



Amurriion elkarretaratzea egin zuten astelehenean. Aiaraldea.eus

Hiru hilabete preso

Azaroan espetxeratu zuten urtebeteko zigorra betetzeko Basauriko kartzelan, Amurrioko txupinazoan preso baten parriska bakoira ateratzegatik. Be-

rriki, baina, Julen Ibarrola amurriarra espetxeratu dute toki berean. Orain arte biek konpartitu dute zelda. Darocan, aldiz, Remirez da dagoen preso politikoko bakarra.

Udala arduratuko da "El crucero" gasolindegiko lurreko kutsadura kentzeaz

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Akordio batera iritsi dira "El crucero" gasolindegi ohiaren jabeak eta Amurrioko Udala. Lan-kidetzaren hitzarmena sinatu dute bi aldeek, azken urteak hainbat auzi eta prozedura judizialtan murgilduta igaro ostean.

Gauzak hala, jabeak 132.600 euro emango dizkio tokiko erakundeari. Modu horretan bete-

behar eta erantzukizun orotatik salbuetsita geratuko da. Udalak hartuko du bere gain gasolindegiko lurreko kutsadura kentzearen ardura.

Biribilgunea

Hainbat obra egingo dituzte, gasolindegian lurpean dituen azpiegiturak kentzeko. Zonaldea berriz urbanizatzea da asmoa. Aurreikusituz, biribilgunea bateraiki nahi dute bertan.

Pediatra bat gehiago du Amurrioko anbulatorioak

Pediatra bat gehiago kontratatu dute Amurrioko anbulatorioan, udalak jakinarazi duenez. Modu horretan, "kalitatezko arreta" bermatzea espero du tokiko erakundeak. "Asko poztzen gaitu Osasun Sailak erantzuna eman izana beste profesional bat jartzeko hartu zuen konpromisoari", adierazi du Josune Irabien alkateak, eta gogorarazi du pediatria zerbitzua "eskualde osoari" zuzendua dagoela.

Laudio

HAPoa moldatzea onartu da udalbatzan, Mercadonak saltokia ireki dezan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Asteleheneko Udal Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu zen Mercadonak Laudion saltokia irekitzeko onartu beharreko puntua. Gehiengo larrokatu zen Hiri Antolamendurako Plan Orokorren -HAPo- moldaketa puntuala egitearen alde, EH Bildu izan zen abstenitu zen bakarra.

Aldaketa hori eginda, zoru industrial izatetik lur komertziala izatera igaro da supermerkatua barne hartuko lukeen pabilioia. Aldaketa hori gabe Mercadonak ezingo luke eraikin hori saltoki bat jartzeko baliatu.

Eztabaida sutua egon zen udalbatzan gai horren inguru-

ruan. Omnia salatu zuen beste hainbat lur daudela herrian erregularizatu gabe. EAJk bat egin zuen alderdi independentearekin, eta gaineratu zuen Mercadonaren balizko irekierak "Laudio mapan kokatzeko" balio dezakeela. Txaro Sarasuak, bere aldetik, nabarmendu zuen internet dela "tokiko merkatarien benetako etsaia".

EH Bilduk gogor kritikatu zituen oposizioko alderdien jarrerak. "Guk nahi duguna da herritarrek non erosi aukeratzeko parada izatea", azaldu zuen Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak, "eredu honi helduz gero, 15 urte barru ez da aukerarik egongo, proiektu horrek tokiko merkataria eta ekoizleak irentsi-ko dituelako".

Mural bat udaletxeko paretan, tokiko merkataritza sustatzeko



Gaur egun laranja-kolorea du paretak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

31.001 euroko diru-laguntza jaso du Laudioko Tokiko Garapen Agentziak Eusko Jaurlaritzaren Hirigune programaren bidez. Hainbat ekintza egiteko baliatuko dute diru hori, tokiko merkataritza sustatzeari begira.

Mural bat egitera bideratuko dituzte 18.183 euro. Udaletxearen atzeko paretan -Aldai plaza- begira dagoena- egingo dute margolana, aurten. "Zer material erabili eta zer nolako irudia egin pentsatzen ari gara", azaldu du Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak, "uste dugu inpatu bisuala asko hobetuko dela, orain dagoen laranja kolorea ordezkatuaz".

Zinegotziak azaldu du baloratu dutela ere murala beste paretan batzuetan egiteko aukera, baina udaletxetik hastea erabaki dute, "eraikin publikoa delako". Hala ere, datozen urteetan antzeko beste lan batzuk egiteko asmoa dute, herriko beste toki batzuetan.

Lonjak hobetzeko 2. fasea

Merkataritza-lonja hutsen estetika hobetzera bideratuko dituzte diru-laguntzaren beste 12.818 euroak.

"Iaz jarri genuen abian horretarako plana", azaldu du Cerrillok, "oso harrera ona izan zuen lonjen jabeen partetik, eta begi-bistakoa da izan duen eragina". Gauzak hala, beste 8-10 lonjen kanpo-itxura hobetuko dute aurten.

A I A R A L D E A
K O O P E R A T I B A
E L K A R T E A

KOOPERATIBAREN OHIKO BATZAR NAGUSIA
KOOPERATIBAKO BAZKIDEEI DEIALDIA

EGUNA: 2018ko martxoak 17

ORDUA: 09:30, lehenengo deialdia. 10:00, bigarren deialdia.
TOKIA: Laudioko Industrialdea 4-8 pabilioia, LAUDIO (Araba)

Aiaraldea

Zehaztu dute zein izango den maiatzaren 6ko herri kontsultako galdera

Testua

Txabi Alvarado Bañares

“Nahi duzu gure geroa erabakitzeko eskubidea erabili, muga bakarra Euskal Herriko herritarren borondate aske eta demokratikoa izanik?”. Hori izango da datorren maiatzaren 6an egingo den herri-kontsultako galdera. Hala adostu dute Aiaraldea Bat elkarte kideek. Prozesu mamitsua burutu dute horretarako, adierazi dutenez: “Herri bakoitzak bere galdera propioa hautatu zuen; eta gero ‘aho batez’ onartu zen galderaren esaera batua”.

Gauzak hala, erronka handia dute esku-artean Aiaraldea Bat-ekoek: maiatzaren 6ko zitan ahalik eta herritar gehienek erantzuz-



Orozkon iaz egin zuten herri kontsulta. Aiaraldea.eus

tea galdera horri Aiaran, Arakaldon, Artziniegan, Amurrion, Laudion eta Okondon.

Giza-katea ekainean

Herri-kontsultarekin, ordea, ez

da amaituko erabakitzeko eskubidearen aldeko jarduna. Ekainaren 10ean giza-katea egingo da Gasteiz, Bilbo eta Donosti lotzeko, eta Aiaraldea ere zeharkatuko du ekimenak.

Erradiazioagatik kaltetutako umeak hartzeko deia luzatu du Bikartek

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Bikarte elkarteak EAEko familiei laguntza eskatu die premiazko deialdi bidez, aurtengo udan Txernobilgo erradiazioagatik kaltetutako adingabeak hartzeko.

Elkarteko presidentea den Amaia Aretxagak mota honetako egonaldien beharra azpimarratu du: “Uda hemen igarotzen duten haurren erradioaktibitate-maila arrisku egoeratik behera jaisten da”. Interesdunek



Iaz Errusia eta Bielorrusiako 16 umek igaro zuten uda Aiaraldean. Bikarte elkarte

605709019 telefonora deitu edo bikarte@yahoo.es posta-elektronikora mezu bat bidali dezakete.

Iaz Errusia eta Bielorrusiako 16 umek igaro zuten uda Aiaraldean, eskualdeko familiekin bizitzen.

MARKET AMURRIO

MARTXOAREN 1EAN IREKIERA!

Gozatu %10eko eta %20ko beherapenez!

Arropa
Etixerako gauzak
Denetarik erramintak
Landareak
...

Zankueta poligonoa, AMURRIO (Gasolindegi alboan)

Orozko

Zortzi plaza gehiago izango ditu Andra Mari edadetuen egoitzak

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

egoitzak aurtan: “Iaz 36 plaza egon ziren, eta aurtan 44”.

Andra Mari edadetuen egoitzaren akordioa onartu zen Orozkoko otsaileko Udal Osoko Bilkuran. “Bizkaiko Foru Aldundiarekin ohiko tramitea da. Plaza bakoitzaren eguneroko kopurua da zehazten dena. Orain arte prezioa moldatzen zen, hemendik aurrera plaza kopurua ere bai”, adierazi du Josu Sanpedro alkateak. Hala, 8 pertsona gehiagorentzat tokia izango du

Berdintasun plana

Bestalde, Berdintasun plana berritzea erabaki zen osoko bilkuran. 2014tik 2017rako iraupena zuen egun indarrean dagoen egitasmoak. Alkatearen hitzetan, teknikariari balorazioa eskatu diote, eta horregatik proposatu dute bi urte gehiagoz luzatzea plana. Udalbatzak begi onez ikusi zuen proposamena, eta ondorioz, ahobatez onartu zen luzapena.



44 plaza izango ditu egoitzak aurtan. Gestión Servicios Residenciales

Itxinan duela 100 milioi urte zegoen arrezifearen bilakaera azalduko dute



Arrezife bat zen Itxina duela 100 milioi urte. Hornet 18

Testua

Txabi Alvarado Bañares

ratuko ditu herrian ostiral honetan -martxoak 2- eskainiko duen hitzaldian. 19:30ean izango da zita Zubiatur aretoan.

Duela 100 milioi urteko Itxina ez zen gaur egungoa bezalakoa. Itsasoan zegoen arrezife bat zen, “Kretazikoko euskal artxipelago” baten parte baitzen. Hala azaldu du Iñaki Garcia Pascual geologoak. Orozkoko inguru menditsu hori ikertu du, eta atera dituen ondorioak plaza-

Garciak azpimarratu du oso berezia dela Itxinaren kasua, harriek milioika urte igaro dituztelako aldaketarik izan gabe. “Arrezifea sedimentuengatik estalia geratu zen, baina mugimendu tektonikoei esker berri atera zen azalera, gaur arte”.

herriz herri

Urduña

Ikasleek erabakiko dute nolakoa izango den Urduñako Herri Ikastetxeko jolasgunea



Ikastetxeko jolasgunea nola moldatu erabakitzea da prozesuaren xedea. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urduñako Herri Ikastetxeko jolasgunea moldatzeko prozesua abiatu dute. Egitasmoa, baina, ez da obra huts bat izatera mugatuko. Prozesu parte hartzaile bat egiten ari dira, zentroko haurrak izan daitezten nolako patioa eraiki erabakitzen dutenak. Ez da erronka makala, 3-12 urteko 160 ikasle baitau-

de ikastetxean. "Tailerrak egiten ari gara klasez-klase, proposamenak jasotzeko", azaldu dute Hiritik at! kooperatibako kideek, eurak ari baitira proiektu osoa dinamizatzen.

Aurkezpena martxoaren 2an
Jasotzen dituzten ideia guztiak bildu eta proposamen bateratu bat osatuko dute, datorren martxoaren 2an -ostiraldegingo duten aurkezpen irekian

plazaratzeko. "Ez da saio informatibo hutsa izango, parte hartzea sustatuko baitugu", azaldu dute dinamizatzaileek. Herritarrek proiektuan inplikatzeko dute helburu, gero auzolan bidez gauzatu ahal izateko jolasgunearen birmoldaketa.

Urduñakoa ez da izan eskualdean egin den tankera horretako lehen proiektua. Amurrioko Zabaleko Ikastetxean ere antzeko egitasmoa egin zuten iaz.

233.215 euro bideratuko ditu Urduñako Udalak aurten hirian inbertsioak egitera

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gaurko -otsailak 28- udalbatzan eztabaidatu eta bozkatu dira Urduñako Udalaren 2018. urterako aurrekontuak. Onartuko direla aurreikusita daiteke, EH Bilduk gehiengo absolutua duelako. Aurten 4.492.409 euro gasatzea aurreikusita du tokiko erakundeak, eta beste horrenbeste jasotzeko asmoa du, zerga, tasa eta transferentzien bidez batik bat.

Dirua, arloz arlo
Diru horretatik guztitik 233.215,59 bideratuko dira inbertsioetara. Ogasunera eta udalaren ohiko funtzionamendu gastuetara bideratuko da diruaren gehiengoa, 1,8 milioi euro. Obra eta zerbitzuetarako 366.810,89 euro erreserbatuko ditu, gizarte ongizaterako 733.639 euro, kultura, euskara, kirol eta hezkuntzarako 472.416 euro, hirigintza eta ingurugirorako 687.248,26 euro, sustapen ekonomikorako 402.513,35 euro eta 28.500, al-

diz, Berdintasun sailaren jardunerako.

Zorrak

Dituen zorren egoeraren berri eman du baita ere tokiko erakundeak. 1.498.181,88 euro zor dizkio BBKri, 352.083,26 euro zor La Caixari -Urduñederra sozietate publikoak hartutako diruagatik- eta 399.167,45 euro IDAE erakundeari.

Aurten 349.014,12 euro bideratuko ditu udalak zor horiek kitzera.

Okondo

24 helbideko kale-izendegi berria izango du Okondok



Okondoko Udalak jakinarazi du datozen hilabeteetan jarriko duela indarrean kale-izendegi berria. "Udal osoko bilkuran onartu zen proposamena iaz, eta aurten jarriko dira seinale berriak", iragarri du Jakue Aramburu Ribadok. Zinegotziak aurreratu duenez, bederatzia helbide izatetik 24 izatera pasako da udalerrria.

Seinaleak kokatzeaz gain, beste hainbat administrazio-lan ere egingo dituzte: biztanleen errolda berrituko dute eta egiten diren aldaketen berri emango diete herritar zein erakundeei. EUSTAT, INE eta Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta gauzatu dute lana, besteak beste.

Zuhaitz berriak landatuko dituzte igerilekuetan



Moztu dituzte dagoeneko Okondoko udal-igerilekuko makalak, gaixorik zeudelako. Espazio hori birmoldatzeko lanak hasiko dituzte orain, udalak adierazi duenez.

"Zorua moldatu eta hainbat espeziatiko zuhaitzak landatuko dira, toki horrek itzala izan dezan ahalik eta lasterren", azaldu du Jakue Aramburu Ribado zinegotziak.

Hainbat espeziatiko zuhaitzak landatuko dituzte: halzatzak, lizarrak, pagoak, gereziondoak, gurbeak eta astigarrak. Datorren martxoaren 17an egingo den Zuhaitz Eguna baliatuko dute horretarako.

Aiara

Irekita dago Aiarako Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Irekita dago Aiarako Jaietako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Martxoaren 23a izango da horretarako azken eguna. Parte hartu nahi dutenek ondorengo toki hauetakoaren batean entregatu behar dute eginiko lana: Aiarako udaletxean, tokiko erakundeak Luiaiondon duen bulegoan edo Etxaurren ikastolan. Lehiaketaren oinarrien arabera, lanek 80 zentimetroko altuera eta 60ko zabalera behar dute izan, eta edozein teknika mota erabili ahal da horiek gauzatzeko.

Lau pertsonak osatuko dute epaimahaia: Gentza Alamillo alkateak, kultura saileko bi kidek, Guraso elkarteko ordezkari-



Iazko kartel irabazlea.

ri batek eta Lantenoko arte eskolako kide batek.

Helduen kategorian irabazten duenari 200 euro emango zaizkio. Umeen artean garaile ateratzen denak, aldiz, 50 euroko bonoa jasoko du, eskola materiala erosteko.

jendarte

“Oso positiboki” baloratu dute asteburuan eginiko industrialdean dagoen 4-8 pabilioira -aurrentzean Faktoria deituko dena- kontsumitzeko eta bizitzeko beste modu herritar bertaratu ziren larunbat eta igandean Laudioko batzuk daudela ikusi eta ikastera.

Kontsumo eta bizitza alternatibean epizentroan izan da Azoka Soziala



Herritar ugari bertaratu ziren asteburuan Faktoriara, Aiaraldeko I. Azoka Sozialera. Gari Garaialde -Bostok Photo-, Igor Goikolea eta Beñat Saratzaga



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Industriaguneak toki lasaia izan ohi dira asteburuetan. Iragan larunbat eta igandean, aldiz, bizitasun nabaria sumatzen zen Laudioko industriaguneko erai-kinen artean. Jende andana bertaratu zen industriagune horretako 4-8 pabilioira, Aiaraldeko I. Azoka Sozialaz gozatzera.

Egitarau oparoa prestatu zuen Aiaraldea Ekintzen Faktoriak azokaren bi egunetarako. Larunbatean tokiko ekoizleen eta proiektu eraldatzaileen postuek hartu zuten pabilioia. Herritarrek aukera izan zuten ekoizleekin zueneko harremana egin eta bizi zein kontsumitzeko alternatibetan berri lehen eskutik jasotzeko. Banku etikoak, moneta sozialak, etxebizitza komunitarioak, kooperatibismoa, elikadura zein energia burujabetza... makina bat egitasmo plazaratu ziren, hamar minutuko aurkezpen laburren bidez.

Soilik elikagai ekologikoekin eginiko herri bazkariaren ostean

eman zitzaion jarraipena programari, Urduñako trantsizio agro-ekologikoari buruzko dokumentalarekin eta elikadura burujabetza eta ekonomia sozial eraldatzailea hizpide izan zituen mahai-inguruekin. Bukatzeko, eskualdeko musikariek itxi zuten lehen eguneko egitaraua. Andrea Ulloa, Igor Arzuaga, Egoitz Uriarte eta Igon Olaguenaga igo ziren oholtzara.

Igandean truke azoka izan zen

ekintza nagusia. Dozenaka lagun bertaratu ziren etxetik hartutako gauzekin, egitasmoan parte hartzeko prest. Umeentzako jolasek, arropa birziklapen tailerak eta energia berriztagarriei buruzko saioak aberastu zuten egitaraua, goizeko azken ordura arte luzatu zena.

Balorazio positiboa

Antolatzaileak “oso pozik” daude azokak izan duen harre-

rarekin. “Ez genuen horrenbeste jende espero, ehunka lagun bertaratu dira, eskualdetik zein kanpotik”, azaldu du Gartzien Garaioak.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriako kidearen esanetan, harrera positiboa izan du ere azokarako sortutako moneta sozialak -Aikoa-: “Ematen zen aiko kopurua jendearen errenta-mailaren arabera, eta herritarrek begi onez ikusi zuten ekimena”.

Hala ere, Garaioak azpimarratu du azoka “abiapuntua” baino ez dela izan. “Datozen hilabeteetan garatuko dugu Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren jarduna, horretarako sortutako lan-taldeen bidez”. Inspirazio iturri gisa izango dituzte azokan aurkeztu diren proiektu eraldatzaileak.

Faktoriaren ateak, beraz, irekita jarraitzen du, eskualdera indar, gogo eta ilusio berriak sartu daitezten.

elkarlan asesores
www.elkarlan.eu

Foru kalea, 2. **AMURRIO**.

Tel 945 39 33 51

Lamuza, 12. **LAUDIO**.

Tel 946 72 74 28

Torre de Ugao, 12. **UGAO**.

Tel 946 03 91 65

Aholkularitza: Lanekoa, fiskala, kontabilitatekoa eta juridikoa

www.elkarseguro.com

historia

1976ko martxoaren 3an Gasteizen poliziak eragindako sarraskiak eragin nabarmena izan zuen eskualdean. Protesta gisa, Aiaraldeko lehen greba orokorra egin zen, eta hiru egunez luzatu zen; langile askok euren egun bateko soldata

eman zieten poliziak hildako beharginen senideei. Guardia Zibila mobilizazioetara bertaratu zen baina ez zen aparteko liskarrik egon, tentsioa oso handia izan bazen ere egun horietan.

Martxoaren 3a, Aiaraldeko langile mugimendua piztu zuen sugarra



Aceros de Llodio lantegiko beharginak izan ziren makinak gelditu zituzten lehenbizikoak. Irudian, fabrikaren itxieraren aurka eginiko mobilizazio bat. **Aceros 25 urte**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Datorren martxoaren 3an 42 urte beteko dira Gasteizen poliziak bost behargin hil zituenetik. Lau hamarkada baino gehiago igaro dira, baina Koldo Gaviñak ondo oroitzen du gertatutakoa, bertan egon baitzen. “Langileen bilera bat egiten ari ginen, garai horietan egiten ziren beste asko bezalakoa”, oroit du garai hartan Aceros de Llodion lan egiten zuen amurriorarrak, “Elizan geunden eta polizia jendea kanporatzen hasi zen. Tiroak entzun genituen eta eraikinaren barruan geratu ginen orduerdiz”. Atera zirenerako jada ez zegoen ezer, anbulantziak baino ez. “Hurrengo egunera arte ez genuen jakin zer gertatu zen”.

Lehenengo greba orokorra

Hurrengo egunean Laudiora ere iritsi zen albistea. “Segituan

gelditu genituen fabrikako makinak”, oroit du Aceros de Llodio-ko langilea ere zen Kepa Garrotek. Lantegitik atera eta herriko plazara abiatu ziren beharginak. San Pedro elizan bilduta erabaki zuten greba orokorra deitzea, Aiaraldeko lehena izango zena. Bi egunez luzatu ziren lanuzteak, eta herri osora zabaldu zen protesta, ikasleekin eta herriko beste hainbat bizilagunekin batera.

Mobilizazioetako batzuk oso jendetsuak izan ziren; Garrote-ren arabera, 8.000 pertsona batzera iritsi ziren. Guardia Zibila presente egon zen egin ziren ekimenetako batzuetan. “Hesi bat osatu zuten plazan eta tiratzaileak jarri zituzten teilatu gehienetan. Baina geroz eta gehiago hurbiltzen hasi ginen. Guardia zibilek atzera egin zuten orduan, harik eta paretaren aurka jarri ziren arte. Euren fusilen kanoiak ukitzera iritsi ginen ia, buelta eman eta alboko kaletik



Aceros 25 urte dokumentala zuzenean emitituko da Aiaraldea.eus atarian martxoaren 4an, 21:00etan

joatea erabaki genuen arte”. Elkartasuna ez zen mobilizazioetara mugatu. “Langileen egun bateko soldata bildu eta Gasteizen hildakoen senideei eman genien”, nabarmendu du Gaviñak.

Argi dago: Martxoaren 3ak eragin handia izan zuen eskualdean. Lehenago lantegietan protesta eta ekimen ugari egin ziren arren, Gasteizko gertakariak erein zuten Aiaraldeko langile mugimenduaren hazia, eta hurrengo urteetan oso indartsua bilakatuko zen.

Acerosen dokumentala

Aceros 25 urte dokumentalera-ko eginiko elkarrizketetan kontatu dituzte Gaviñak eta Garrotek arestian aipatutako bizipenak. Aiaraldea Gaur hedabideak dokumental horren zuzeneko emisioa eskainiko du datorren igandean -martxoak 4- Aiaraldea.eus atarian, 21:00etatik aurrera.



Koldo Gaviña

Gasteizko sarraskiaren lekukoa

“Elizan geunden polizia jendea kanporatzen hasi zenean. Tiroak entzun genituen eta barruan geratu ginen”



Kepa Garrote

Aceros de Llodio-ko langile ohia

“Guardia zibilek hesi bat egin zuten herriko plazan. Baina guk aurrerantz egin genuen... eta eurek atzera, paretaren aurka jarri ziren arte”

iritzia

Gela eta dirua

Mugimendu feminista oso indartsu dago. Lan egiteari utziko bagenio, mundua geratu-ko litzateke. Badira aldatu ez diren gauzak. Emakumeak kalera atera gara lan egitera, baina gizonak ez dira neurri berean etxeratu zereginei heltzeko. Desoreka horrek emakumeak bi lanalditara garamatza, bizitza pribatuan funtzio asko gure gain baitaude. Horri, soldatapeko lanetan, oraindik ere, emakumeok gutxiago kobratzen dugula gehitu behar zaio; eta lanbide feminizatuetan, zer esanik ez. Irakaskuntza zentroetan ere nabari da oreka eza, haurrak eramaterakoan edota klaustroetan jendea aztertzea besterik ez dago ohartzeko. Zentzu horretan, krisi ekonomikoak ere izan du eragina: erakundeek eta enpresek ez dituzte zaintza lanei heltzeko orduak edota erraztasunak eskaintzen. Ondorioz, emakumeak ez gara gure bizitza eta denboraren jabe.

Virginia Woolfek emakumeok gela propio bat eta dirua behar genuela zioen. Batetik, gure denboraren jabe izateko, eta bestetik, gure buruarekin egoteko espazioa edukitzeko. Filosofozetik harago ekintzei heltzeko garaia. Klean berdintasuna lortzen ari dela esaten da, baina ez da egia. Feministok izan behar dugu abangoardia eta eredu, datozen belaunaldiei indarra eta askatasuna emate aldera. Emakumeok "gure" egin behar ditugu espazioak, lanak ez diezagun gure bizitza okupatu, gure eskubideak zapaldu ez daitezen. Balio eta bostere berdinarekin izan behar gara gure buruaren jabe. Eta ez, ez gaude gela batekin eta lau txanponekin konformatzeko prest.



ANA UNZAGA GALNARES
Berdintasun teknikaria



IGOR LUJANBIO GALDEANO
Irakaslea

Iparrorratz moreak amets

Labanda usain moreak marka diezagula bidea, zelai more zabaletan...

- "Hi mutil, jarrai ezak usain hori".

Irakurketan, anbulatorioan, ikastolan, etxean, hausnarketan, ametsetan, klean, gidaritzan, ekonomian, eztabaidan, zaharren egoitzan, gizartean, familian, janari-dendan, hezkuntzan, lagun artean, ulermenean, bakardadean, umorean, zaintzan, parrandan, antolakuntzan, sorginkerian, literaturan, isiltasunean, lan-munduan, hizkuntzan, borrokan, martxoaren 8an, bihar, atzo, gaur, etzidamu, beti, irribarrean.

- "Entzun ezan, mila esker, bihotzez. Bidea ikusten dinat!".

Beatriz Fernandez Fernandez, Fidela Bernat, Ekhiñe Eizagirre, Maria de Maeztu Whitney, Miren Lourdes Oñederra, Drew Gilpin Faust, Amaia Lasa, Rebeca Wild, Ainara Azpiazu "Axi", Maria Montessori, Sorne Untzueta, Irati Jauregi Lopez, Itzi Azumendi, Annie Marquier, Madalen Jauregiberri, Emmi Pikler, Elbira Zipitria, Leire Bilbao.

- "Zenbat ezagun? Usaimenik ez?"

K. Tellitu, R. Cristobal, A. Egaña, J.M. Agirretxe "Porrotx", X. Arzalluz, R. Descartes, X. Garagorri, N. Chomsky, J. Sarrionandia, L. Vigotsky, R.M. Azkue, B. Etxepare, G. Aresti, M. Laboa, J. Musons.

- "Zenbat ezagun? Egin kontu. Abizenarekin aski. Jarrai ezak usain morea, berak gidatuko hau, berak piztuko dizkik begiak". Iparrorratz moreak amets.



Eider Gartzia

**GREBA EGITEKO
MILAKA ARRAZOI
DITUGULAKO**



GALDERA

Zeintzuk dira zuretzat greba feminista egiteko arrazoiak?



Garazi
Ikaslea

Jasotzen dugun hezkuntza ez da feminista, hezkuntza feminista existitzen den arren. Zapalkuntzak jasaten ditugu klean, etxean, klean... ikaste-teak kalearen isla direlako.



Maria Jesus
Erretiratua

Emakumeak geratuko bagina, mundua ere geldituko litzateke. Jendartean ez dago horri aurre egiteko egiturarik. Gizonezkoek ez dakit zer egingo luketen, baina larritu gutxienez seguru.



Mariasun
Irakasle ohia

Emakumeok egiten ditugun lan batzuk gutxiesten dira. Emakume izateagatik hainbat behar barneratzen dira: familia zaintza, haurrak eskola edo medikura eramatea...



Sole
Administrazioko langilea

Lan egiten dugun emakume gehienak jardun bikoitza dugu: etxean eta kanpoan. Zaintza lanetaz bizi diren emakumeak oso egoera prekarioan daude, euegana iritsi behar gara.

erreportajea

Mundua mugitzeko, emakumeek* planto



Agerraldia egin zuten iragan ostegunean eskualdeko dozenaka emakumek, Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan. **Nora Latatu Landaluze**

Emakumearen Nazioarteko Egunak -martxoak 8- jautzia emango du aurten: greba feminista deitu dute. Aiaraldean ere dozenaka emakumek ekin diote ekimena prestatzeari.

Helburu lanabistaratzeari eta aitortze eta lanuzte eta ekimenen bidez. Hezkuntza, zaintza, kontsumo eta lan-munduko beharrei planto eginez gero, zer gertatuko litzateke?



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Emakumeak geratzea eta elkartzea, mundua mugitzeko. Hori da martxoaren 8an eskualdeko zein munduko emakumeek lortu nahi dutena. Euskal Herriko mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak bat egin dute mundu mailako grebarekin. Irudikatu nahi dutena argia da: planto eginez gero, mundua gera litekeela. Finean, emakumeak ahalduz nahi dute: "Planto egiten badugu sistema honek ez duela aurrera egi-terik benetan irudikatzea".

Horretarako hainbat esparru hautatu dituzte: hezkuntza, zaintza, lan-mundua eta kontsu-

moa. Izan ere, "ezkutuan" gertatzen dira hainbat lan, aitortu eta ordaindu gabe, zaintzako hainbat zeregin kasu. Are, kotizatzen diren kasuetan oso baldintza txar eta soldata baxuarekin gauzatzen dira, sindikatuen iriziz.

Aldarriei atxikitzeke keinu gisa, etxeetako balkoietan amantalak zintzilikatzeko proposamena luzatu dute Aiaraldean ere. "Grebak feminista honen duen gauza ona da irudimena lantzeko balio duela: batzuk ileordekin lan egingo dute, beste batzuek zapi moreak lotuko dituzte besora...", azaldu du Izaskun Garcia Etxebarria sindikalista. Datuetatik harago, ez-ohiko parametroetan kokatu du greba: "Ez da greba arrunta, fe-

minista baizik. Emakumeek soilik egin dezakete, sistema kapitalista heteropatriarkal honi planto egiteko. Gu izango gara subjektuak, eta beraz, protagonistak. Kalera aterako gara gure lana ikusarazteko".

Eta gizonak, zer? Nola egin lezakete bat aldarriekin? Eguneroko lanei helduz (ume edo edadetuen zaintza lanak, garbiketa edota sukaldeko zereginak...) edota informazioa zabaltzen lagunduz, besteak beste. "Batzuk grebarekin bat egin nahi dute, elkartasunagatik. Ikuspegi feminista duten mutilak grebaren prozesuan izan behar dira bide-lagun: informazioa helarazten, lantokietan arrazoiak azalduz, kartelak edota bitartekoak zabaltzen...", zehaztu du Garciak. Mo-

Hezkuntzan, zaintzan, kontsumoa eta lan-munduan greba feminista egingo dute martxoaren 8an

bilizazioei dagokienez, arratsaldeko kalejiran soilik hartu ahaliko dute parte; 20:00etan Laudioko herriko plazatik abiatuta, "eta bigarren lerroan beti ere, protagonismoa emakumeei aitortuz. Bizitza pribatuan ukatuko ditugun lanak egin beharko dituzte egunean zehar, zaintzakoak, batez ere". Ildo beretik, lan eremuko irizpideak azpimarratu ditu: "Kontua ez da ordezkatzea, baizik eta lan egingo ez bagenu sortuko litzatekeen kaosa irudikatzea". Zentzu horretan, egunerokoan dituzten pribilegioak alboratu beharko dituzte gizonak, egun batez behintzat.

Hezkuntza, "hankaz gora"

Hezkuntza izango da planto eremuetako bat. Izan ere, ikas-

DEIALDIAK

UrduñaGoizean:
Hainbat ekintza Foru plazan12:00 // **Elkarretaratzea,**
Foru plazan12:30 // **Lapiko burrunbada**19:00 // Emakume
Langilearen Nazioarteko
Eguneko **kontzentrazioa,**
udaletxean**Amurrio**Goizean:
**Burrunbada, flashmoba eta
bazkari herrikoa**Arratsaldean:
Musika eta mikro irekia,
"Gune beltzen ibilbidea"**Laudio**12:00-13:00 // **Emakumeon*
salaketak eta aldarriak,**
Batzalarrin ingurua
emakumez, karriz eta
tenderoz bete12:30 // **Emakumeon* Lapiko
Burrunbada,** Batzalarrin
kaletik hasita17:30 // **Gune morearen
irekiera:** iluntzeko
mobilizazioaren prestaketa
eta girotze lanak, Batzalarrin
kalean19:30 // Emakume
Langilearen nazioarteko
eguneko **elkarretaratzea,**
udaletxean20:00 // Aiaraldeko
Mugimendu Feministaren
**Manifestazio alai eta
koloretsua,** Herriko plazatik

leek zein langileek lanuzteak deitu dituzte. Laudio Ikastolak, esaterako, oharra plazaratu du grebarekin bat egiten duela esanez, eta horrek hala eskola orduetan nola jantoki zerbitzuan eragin nabarmena izango duela erantsita.

Gemma Corbella Egiluz irakaslea da Okondoko eskolan. Sektorereko egoeraz galdetuta, ez du zalantzarik: "Hazkuntza eta zaintza lanak emakumei egokitu zaizkigula agerian dago, gure gizaritari erreparatzen badiogu, ez dago inondik inora ere orekatuta". Guraso den heinean, berriz, kritikatu du genero-rolak oso barneratuta ditugula bizimoduan: "Ume edo nagusien zaintzaren zama oraindik gure gain geratzen da".

Ildo horretatik, sexu-estereotiporik gabeko hezkuntza baten beharra azpimarratu du, gizarte eredu aldaketatik hasita: "Ikasle txikiak gizonetako gehiago ari tuko balira, lagungarria izango litzateke haurren pertzepzioa aldatzeko". Garazi Beldarrain Santos ikasleak neska izanagatik jasaten dituzten zapalkuntzak aipatu ditu: "Badakigu filosofian, matematikan, historian neska askok lortu dituztela zenbait gauza, eta ez dira lantzen. Ikastetxeak kalearen isla dira: klasean, etxean, kalean... zapaldu ta gaude".

Bide horretan, ikastetxeek erronka txikiak zehazteko beharra gaineratu du Iratxe Letona Pastor gazteak, eta "hezkuntza ikuspegi feministatik eraikitze ko" mobilizatzeko deia luzatu du.

Kontsumoa ezbaian

Eta, egungo kontsumo ereduak ba al du eraginik? Sindikalistek argi dute baietz: "Merkatalgune eta komertzioak feminizatuak egoteaz gain, esplotazio eta prekarizazioak eremu bihurtu dira". Inditex, Zara edota arropa enpresak jarri ditu Garciak adi-

bide modura: "Horrelako kateek zer nolako ereduak bultzatzen dituzte? Sexu edo gorputz prototipo jakinak". Aida Iza Fuentes okinaren hitzetan, elikadura eta erosketen arduraren desoreka dago: "Dendara etortzen diren %90 emakumeak dira". Izaren ustez, jendarteak arazoa ikusi arren ez du bere egiten: "Aza-roaren 25ean erremolatzeko ogi moreak egin nituen feminismoaren sinboloarekin, lortutako dirua *Mujeres al cuadrado* elkar-teari emateko: bitxia da, baina gizon bakarrak erosi zuen ogia".

Hezkuntza izango da planto eremuetako bat. Izan ere, ikasleek zein langileek lanuzteak deitu dituzte

Eguneroko lanei helduz hartu ahal izango dute parte gizonetako greban

Egoerari buelta emateko zerrenda luzea da, Izaren iritziz: "Gure haurrei erakusten diegunari erreparatu behar diogu: mintzatean generoaren erabilerekin inor ez baztertzea, erosketak egitean aitarekin joatea amarekin ordeztu ez markatzeko... Etetik hasi behar da lana".

Lantokiak alboratuta, berdintasunera gerturatzeko deia



Hainbat adin eta profiletako emakumeak batu dira. Nora Latatu Landaluze

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aurtengo martxoaren 8ari iraultza usaina dario. Batetik, emakume ugari aterako direlako kalera ogibideari planto eginez, enpleguen eta zaintza lanen bidezko banaketa eskatzeko. Eta, bestetik, hamaika gizonen alboratu beharko dituztelako euren pribilegioak zintzilik geratuko diren etxe-ko lanei heltzeko. Izan ere, greba eguna deitu dute Euskal Herriko Mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak. Mundu mailakoa da ekimena, iaz Argentinan gauzatutako plantoari jarraiki, 70 herrialde baino gehiagotan gauzatuko baita. Aiaraldean ere izan du eragina dinamika.

Hain zuzen, urtarilaz geroztik, makina bat emakume elkartu dira greba feminista prestatzeko. Neska gazteen taldeak izan ziren batzen lehenak, 30 bat lagun. Otsailean, aldiz, bilera irekiak antolatu dituzte herriko, baita auzolan egunak ere: "Eskualdeko lehen deialdiak izan zuen harrera itzela ikusita, herrietan asanbladak egitea erabaki genuen", azaldu du Maddalen Muguruzak. Horrela osatu dituzte Urduña, Laudio eta Amurrioko egitarauak.

"Bi baterajotze zehaztu ditugu Aiaraldean: goizean 12:00etatik 13:00etara egongo dira mobilizazioak herrietan, eta 20:00etan eskualdeko manifestazioa egingo dugu Laudion".

Irudimena nagusi

Dena dela, ez dira ohiko ekimenak izango: irudime-

na izango da nagusi. Goizean lapiko "burrunbadez" beteko dituzte eskualdeko kale nagusiak: "Aulkiak eta arropa eskilekuak jarriko ditugu greba egiteko arrazoiekin eta amantalekin". Tokian toki, ekintza ezberdinak egongo dira. Flashmoba, bazkari herrikoa, musika eta "mikro irekia" prestatuko dituzte, esaterako, Amurrioren. Laudion, berriz, Batzalarrin kalea bihurtuko dute emakumeen aldarrien isplu. "Badakigu zenbait tokietan emakumeek ezingo dutela greba egin; horregatik 'zerbitzu minimoetan nago' dioten euskarriak zabaldu dira", erantsi dute Greba Feministaren plataformatik. Ildo beretik, ekimena babesten duten lantokietan elkartasuna adierazteko euskarriak jarri dituzte eskura interneten.

Goizean mobilizazioak egongo dira herrietan. Arratsaldean, aldiz, eskualdeko mobilizazioa egongo da Laudion

Horrez gain, gune moreak atonduko dituzte herrigunetan, emakumeen lan munduko egoera ezagutarazi edota herriko kaleak apaintzeko. Gauzak hala, lantokiak alboratuta berdintasunera gerturatzeko deia luzatu dute.

BERDINTASUNA ALDARRIKATZEKO MARTXA

IZENA EMATEA
5€
EL ASTIKO
TERMIKOEN
BANAKETAALTZARRATE:
699 93 93 89KASKAGORRI:
665 75 19 81**MARTXOAK 10**Nerbioi Parke Lineala
ANIMA ZAITEZIRTEERA
10:00
HERRIKO
PLAZA
LAUDIOJan - Edana
LuiaondoIRTEERA
10:00
HERRIKO
PLAZA
AMURRIO

erreportajea

DBHko ikasle gehienek ez dute alkoholik edaten



Asteburuetan egin ohi dute nerabeek alkohol kontsumoa. **Misha Moloksher**

Alkoholaren kontsumoari buruzko galdetegiaren emaitzak aurkeztu dituzte. Amurrio eta Laudioko ikastetxeetako 1.127 nerabek hartu dute parte ikerketan. Emaitza esanguratsuak

atera dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden ikasleak 13-14 urterekin hasten dira alkohola probatzen, baina gehienek ez dute kontsumitzeko ohitura.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Goiz hasten dira Aiaraldeko gazteak alkohola probatzen, baina gehienek ez dute kontsumo jarraia egiten. Hori da Amurrio eta Laudioko ikastetxeetan eginiko galdetegietatik atera daitekeen ondorio nagusienetako bat.

2016-2017 ikasturtean egin zen inkesta, Arabako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako -DBH- ikasleen artean. Urtarrilean aurkeztu zituzten herrialdeko emaitzak, eta Laudio eta Amurrioko hezkuntza zentroetakoak plazaratu dituzte orain. Lortutako datuek, baina, "eskualde osorako" balio dute, bi

herri horietako ikastetxeetan inguruko herrietako ikasleak ere badaudelako, eta gazteek "jai-eremua" konpartitzen dutelako. "Festetan hainbat herrietako lagunak biltzen dira. Ohiturak, beraz, ez dira herri bakoarreak, eskualde osokoak baizik", azaldu du Gotzon Minguez Ojembarrenak. Psikologo laudioarrak nabarmendu du 11-18 urte bitarteko 1.127 ikaslekerantzun dutela galdetegia, eta hori "osolagin handia" dela mota honetako ikerketa baterako: "Datuak, beraz, oso errealak dira".

Nerabe gehienek -%60k- adierazi dute alkohola probatu izan dutela. "Baina horrek ez du esan nahi ohikoan kontsumitzen dutenik", azpimarratu du Minguezek. 13 urte edo gehiago dituz-

ten nagusien artean nabarmen egiten du gora alkohola probatu dutenen ehunekoak. "Gazte horiek seguru asko ez dute zaporea zein den jakiteko edan, bestelako efektu batzuk izateko baizik", argitu du psikologoak, eta gaineratu du igoera horretan arazo bat egon daitekeela. "Hasiara goiztiarra arrisku faktore bat da. Gorputza garapen edozein toxiko oztopo bat da". Hala ere, egoerari larritasuna kendu dio Miguezek: "Estatistikoki hitz eginda gutxi dira alkoholarekin benetako arazoak izatera iristen direnak".

Baina, nork eskaintzen die alkohola adingabeei? %58,8kerantzun dutenez, adiskideen bidez lortu dute. Dena den, ehuneko

Emakumeen kasuan kontsumoak behera egiten du 16 urtetatik aurrera. Gizonezkoetan, aldiz, nabarmen handitzen da

esanguratsu batek senideen bidez jaso du: %31k, hain zuzen. "Badaude bere gurasoek trago bat eskainita probatu dutenak, zaporea zein den jakiteko; beste helbururik gabe", argudiatu du Minguezek.

Gizonezkoek gehiago

Kontsumoaren nolakotasuna, aldiz, "alkohol unitatetan" neurtu dute. Unitate horietako bakoitzak 10-12 gramo alkohol puru ditu. "Ardo edalontzi baten, kalimotxobaten edo 33 zentilitroko garagardo lata baten baliokidea da", kontatu du adi-tuak. 14-15 urtetik aurrera nabarmen igotzen da kontsumitzen diren unitateen kopurua. "20 unitate baino gehiago hartzea arrisku handiko kontsu-

BESTELAKO DROGAK

Alkohola edaten duten nerabeen %17,3k tabakoa kontsumitzen dute baita, %11,8k kalamua, %5ek botikak, %1,8k lasaigarriak, %1,5ek speeda, %1,5ek kokaina, %1,3k ziza aluzinogenoak, %1,2k extasia, %0,9k LSDa eta %1ek ketamina

EDARI ENERGETIKOAK

Edari energetikoak dira gazteek alkoholarekin nahastuta gehien kontsumitzen dutena. %24,4k hartzen dituzte halako produktuak. Edari horiek dakartzaten arriskuez ohartarazi dute adituek. Azken urteetan nabarmen egin du gora kontsumoak, eta edozein neraberen eskura daude

LAGUNEN PRESIOA

Nerabeen %54,2k "ondo pasatzeko" kontsumitzen dute alkohola. %46,4k, baina, lagunek ere egiten dutelako kontsumitzen dute

moa da. Badaude maila horietara iristen diren gazteak".

Hala ere, generoaren arabera ezberdintasunak ageri dira, azpimarratzeko modukoak: emakumeen kasuan kontsumoak behera egiten du 16 urtetatik aurrera. Gizonezkoen artean, aldiz, nabarmen handitzen da.

Adituen ustez, Lehen Hezkuntzan hasi beharko lirateke prebentzio kanpainak, eta alkoholik gabeko aisialdi-ereduak sustatu behar dira

"Betekada-alkoholikoen" kopurua ere kalkulatu dute. Denbora laburrean 5-6 unitate alkohol hartzean datza neurri-gabeko kontsumo hori. Nerabe kontsumitzaileen %26,4k aitortu dute horrelako betekadak hilean behin baino gutxiagotan izaten dituela.

Hala ere, hor ere alde handiak dauden generoaren arabera: asetero kontsumo lar egiten duten gazteen artean gizonezkoen kopuruak bikoiztu egiten du emakumezkoena. Antzeko fenomeno gertatzen da mozkorraldi-tasarekin -norberaren pertzepzio pertsonalaren arabera neuritzen den parametroa-.

Edari energetikoen gorakada Bestelako droga batzuegatik ere galdetu diete ikasleei galdetegian. Alkohola edaten duten pertsonen %17,3k tabakoa kontsumitzen dute baita, %11,8k kalamua, %5ek botikak, %1,8k la-

1.127 ikaslek erantzun dute galdetegia

%60k alkohola probatu du noizbait

757 nerabek -gehiengoak- ez du ohikoan kontsumitzen

saigarriak, %1,5ek speeda, %1,5ak kokaina...

Alta, alkoholarekin gehien kontsumitzen diren drogak ez dira horiek. Edari energetikoak dira "substantzia izarrak", %24,4k erabiltzen baitituzte mota horretako produktuak alkoholarekin nahasteko.

"Asko zabaltzen ari da edari energetikoen kontsumoa", aipatu du ikerketaren egile Mariola Miguelek: "Sekulako kafeina dosia daukate eta alkoholaren faktore depresiboa orekatzeko erabiltzen dira, banaka ere kontsumitzen diren arren". Mota horretako produktuen arriskuaz ohartarazi du: "Estatu Batuetan eta Mexikon ez dira dagoeneko supermerkatuetan saltzen, baina hemen elikagaien kategoria berean sartuta daude".

Aisialdia eraldatu beharra

Alkoholaren efektuekiko eza-gutza gutxi dagoela uste dute ikerketaren egileek. "Galdetegia erantzun duten gazteetako askok ez dute droga horrek kontsu-

mitzeak dakartzan ondorio fisiko berri, ez dute argi generoaren arabera dauden ezberdintasunak, ez eta kontsumoaren eta sexualitatearen artean dauden harremanak ere". Prebentzio-saioak "lehenago" egin beharko liratekeela gaineratu du Miguelek: "Lehen hezkuntzan hasi beharko litzateke".

Psikologo laudioarrak azpimarratu du alkohola "integrazio-rako mekanismoa" dela gazte askorentzat. "Inork ez zaitu edatera derrigortzen, baina koardilaren presioa oso handia izan daiteke".

Horregatik, drogatze beharra sustatzen ez duten aisialdi-ereduak sortu behar dira; bere ustez. "Badaude ezer kontsumitzen ez duten gazte asko, eta datu hori oso nabarmeneko da. Sare lana egin behar da, adingabeekin dauden elementu guztiek: eskola, familia, aisialdi-elkarteak...". Iritzi berekoa da Miguelek: "Sustatu behar dira ondo pasatzeko beste modu batzuk".



Josune Irabien eta Natxo Urkixo alkateek hartu zuten parte ikerketaren emaitzen aurkezpenean. Aiaraldea.eus



LARRIALDI TELEFONOA DOAN
www.bertako.eus • info@bertako.eus

Bizkaia 946 52 39 35
Araba 945 71 28 22

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**

Euskarazko zerbitzua

Martxoaren 8tik harago

zabalduko dira emakumeen askapenaren aldeko aldarriak



Berezia izango da aurtengo martxoaren 8a, egitasmo berri bat batuko baitzaie ohiko jarduerari: greba feminista. Aiaraldeko dozena emakume ari dira ekimen hori aurrera ateratzeko lanetan, eta hainbat mobilizazio eta ekintza egitea aurreikusitakoak dira. Ez dira faltako egun horretan egin ohi diren elkarretaratzekoak, baina arratsaldean.

Autodefentsa ikastaroa

Baina ekintza guztiak ez dira egun horretan egingo. Solastiar emakume taldeak, adibidez, gura atzeratu du egin ohi duen bazkaria, grebarekin bat egiteko. Autodefentsa ikastaroa da egingo den

beste jardueretako bat. Martxoaren 16an izango da Laudioko Kultura Etxean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Maitena Monroyk gidatuko du saioa eta 94 403 48 50 telefonoan eman daiteke izena.

Aiaraldea.eus atarian kontsultatu daiteke zerekinza egingo diren herri bakoitzean.

Zinegoak jaialdia

Laudio eta Urduñan ikusgai



Zinegoak presentzia izango du Aiaraldean. Bilboko nazioarteko zinema gaylesbitrans jaialdi horretara aurkeztutako filma laburraren emanaldiak egingo dituzte eskualdean. Laudion proiektatu-ko dituzte lehenbizi, martxoaren 9an. 19:00etan izango da zita Laudioalde aretoan. Urduñan izango da bigarren saioa, martxoaren 16an 19:00etan Alondegian.

Ze esateki!, Stepi eta DJ Markelin kintoen jaian

Iragan otsailaren 16an egin zuten Amurrioko kintoen jaia. Datoren martxoaren 3an -larunbata-, aldiz, Urduñako txanda izango da. Egun osoko egitaraua prestatu dute aurtengo urte bete-tzera doazen gazteek. Umeentzako jolasekin emango diote hasiera egitarauari goizean. Arratsaldean eta iluntzean, aldiz, musikatzen Amurrioko protagonismo osoa. 19:00etan Laudioko Kuntan batukadako kideak arituko dira herria danborren erritmoragiroz. Ondoren iritsiko da kontzertuen unea: Stepi Selektah, Ze esateki! eta DJ Markelin igoko dira oholtzara.



Artziniegako mendi ibilaldia bederatzigarrenez

Martxoaren 4an zita garrantzitsua izango dute mendizaleek Artziniegan, Gantzorrotz menditaldearen ibilaldiaren IX. edizioa egingo baita. Martxa luzea 8:00etan abiatuko da eta laburra 9:30ean. Gantzorrotz wordpress.com atarian edo egunean bertan eman daiteke izena.

MUSIKA

03.03 Larumbata
20:00 AMURRIO
"EMAKUMEAK MUSIKAN"
Doan
Amurrio antzokia

03.10 Larumbata
22:30 AMURRIO
YO NO LAS CONOZCO +
LAS SEXPEARES
Sarrera: 5 euro
Burbio kultur elkartea

03.09 Ostirala
23:00 LAUDIO
SANTERO Y LOS
MUCHACHOS
Sorgin taberna

ANTZERKIA

03.03-03.04 Larumbata eta igandea
20:00 / 17:00 LAUDIO
"LADYKILLERS"
Oihalan zabaltzen
taldearen lana, sarrera
dohakoa
Laudioalde

03.03 Larumbata
20:00 LAUDIO
AXLOR RIEZUREN
BAKARRIZKETA
Tolo taberna

03.07 Asteazkena
19:00 LAUDIO
BADAM BADUM
Laudioalde

KIROLA

03.03 Larumbata
9:30 LAUDIO
IV. MUGAGABE TRAIL
Aldai plaza

03.03 Larumbata
11:00-12:30 AMURRIO
ESKUBALOI PARTIDUAK
Bañueta kiroldegia

03.04 Igandea
8:00 ARTZINIEGA
ARTZINIEGAKO IX.
MENDI IBILALDIA
Frontoia

IKASTAROAK

BESTEAK

03.02 Ostirala
12:00 LAUDIO
ELKARRETARATZEA
"Gora langileen borroka"
Lamuza plaza

03.03-03.04 Larumbata/Igandea
10:00-14:30 / 18:00-20:00
AMURRIO
PAGOTXEN AZOKA
Frontoian

03.03 Larumbata
14:30 LAUDIO
1945EKO KINTA
Mesa, brindisa eta bazkaria
Batzokia

03.03 Larumbata
10:00-21:00 URDUÑA
KINTOEN JAIA
Goizean umeentzako jolasak
19:00 // Kun-kun batukada
21:00 // Stepi selektah +
Ze esateki! + DJ Markelin
Foru plaza

03.05 Astelehena
16:00 LAUDIO
ODOL EMATEA
Ugarte plaza

03.10 Larumbata
13:00 URDUÑA
DANTZALDIA
Foru plaza

03.10 Larumbata
13:00 LAUDIO
1944EKO KINTA
Irteera busez,
Leon de Artxanda jatetxea

03.10 Larumbata
19:00 AMURRIO
URREZKO GUK-AREN
BANAKETA
Amurrio Antzokian



Ezagutu gure kultura eskaintza berria!



Kartelera



LAUDIOALDE
ARETOA

Handia

MARTXOAK 2/3/5
OSTIRALA, LARUNBATA ETA
ASTELEHENA (4 euro)

20:30 / 22:15 /
20:30



LAUDIOALDE
ARETOA

Wonder

MARTXOAK 3/4
LARUNBATA ETA
IGANDEA (3 euro)

17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

Boonie Bears y el gran secreto

MARTXOAK 4,
IGANDEA (Haurrek 3,5 euro
eta helduek 4,5 euro)

16:30



DONIBANE
ARETOA

El cuaderno de Sara

MARTXOAK 4,
IGANDEA (Haurrek 3,5 euro
eta helduek 4,5 euro)

19:30

Coen anaien filma oholtzan,

Oihalak
Zabaltzenekin

Coen anaien filma bat antzerkira moldatu dute Laudioko Oihalak Zabaltzen taldeko kideek: *The Ladykillers*. Kasino bat atrakatzeko asmoa duen lapur-talde baten istorioa kontatzen du antzezlanak. Datorren larunbatean -martxoak 3- ikusi ahalko da obra, 20:00etan Laudioalde aretoan.



AMURRIO
ANTZOKIA

Salvando el reino de Oz

MARTXOAK 4,
IGANDEA (3,7 euro)

17:30



URDUÑAKO
ALONDEGIA

Ballerina

MARTXOAK 4,
IGANDEA

Euskarazko filma

18:00



AMURRIO
ANTZOKIA

La batalla de los sexos

MARTXOAK 4/5
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(4,9/3,7 euro)

17:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA

Errementari

MARTXOAK 9/10/11/12
OSTIRALA, LARUNBATA ETA
ASTELEHENA (4 euro)

20:30 / 22:15 /
17:30 / 20:30

03.05

Astelehena

14:30 LAUDIO
EROSKETA ESPERIENTZIA BOROBIKAK LORTZEKO GAKOAK
Lehen saloa
Tokiko garapen agentzia

03.05

Astelehena

15:00 LAUDIO
GATAZKAK EBAZTEKO TREBEZIAK GARATzea
Lehen saloa
Tokiko garapen agentzia

03.05

Astelehena

17:00 LAUDIO
NOLA HOBETU NEURONEN FUNZIONAMENDUA
Tailer praktikoa
Kultura Etxea

03.07

Asteazkena

17:00 LAUDIO
ZER DIREN SASI-ZIENTZIAK ETA ZERGATIK EGON BEHAR GAREN ADI
Kultura Etxea

UMEENTZAKO EKINTZAK

03.03

Larunbata

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Tor magoa
Lamuza parkeko ludoteka

03.10

Larunbata

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Kometatallerra
Lamuza parkeko ludoteka

HITZALDIAK

03.02

Ostirala

17:00 LAUDIO
"NOLA ALDATZEN DA LOALDIA ADINAREKIN?"
Kultura etxea

03.02

Ostirala

17:00 ARTZINIEGA
"ORGANO, EHUNEN ETA HEZUR MAMIEN DONAZIOA ETA TRANSPLANTEA"
Udaletxe zaharra

INFO +

aiaraldea.eus

Aldai enparantza, LAUDIO

672 23 50 65

www.tolobar.com



MARTXOA

3 "El Club de la Comedia" ko Axlor Riezu-ren bakarrizketa
20:00

10 Santero y sus muchachos
14:30
Disko aurkezpena (Pop)

16 Luis Cañas familiarako produktuen dastatzea
20:00
Info+: Tolon

17 Placton
20:30
Bertsioak (Urduña)

24 Erizos
20:30
(Rock)

APIRILA

14 Alberto Inunciaga
14:30
(80. eta 90. hamarkadako bertsoak)

20 Bodegas del Medio
Medio dastatzea
20:00

21 Joaco Rodriguez
17:00
(Blues harmonikarekin)
Eriz **20:00**
(Bertsioak)

27 eta 28 Apirilko azoka
20:00 eta 14:00


MAIATZAK

26 Cowboy

Kultura

“Urduñak isla nabarmena izan du literaturan”

AZAHARA GARCIA PEREZek (Urduña, 1982) IRAKURKETA KLUBA SORTU DU URDUÑAN. HIRIA ARDATZ DUEN LIBURUEN ZERRENDA OSATU DU. BERTAN GIROTUTAKO ELEBERRI BAT AZTERTU DUTE LEHEN SAIOAN.



Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Irakurketa Kluba eratu berri duzu. Nolatan?

Istorio luzea da. Nik *lapaginamerotrece.es* bloga dut, zale gisa. Nire bikoteak eta biok, “bidaiazaleen erronka” egitea pentsatu genuen: probintzia bakoitzeko nobela bat irakurri eta ondoren bertara joatea, bideoa grabatu eta youtubera igotzeko.

“Literatura turismo” gisa defini liteke zure erronka, beraz.

Bai! Momentuz bi lan bukatu ditugu: Oviedokoa eta Pasaiakoa. Oviedon lau-bost aldiz egona nintzen, baina Pasaian ez. Oso polita izan zen Gipuzkoakoa. Bideoetan liburuak komentatzen ditugu, baina istorioen erroetara joan gabe.

Liburuak bertaratzeko aukeraren arabera aukeratzeko dituzu?

Toki batzuk errazak dira: Euskal Herria, Madril... Baina badira zailak ere, Albacete edo Ceuta kasu. Jendea Twitter edo Facebook bidez galdetzea bururatu zitzaigun, bisitatu nahi ditugun lekuetako liburuak irakurri eta bertara joateko. Horrela ibiltzen gara.

Bizkaiaren txanda heldu zenean, Urduñan girotutako eleberririk zerrendatu nituen, banekielako bazirela batzuk. Googlen begiratu nuen, baina ez zen hirian girotutako izenbururik agertu. Orduan, *No eres de Orduña si...* Facebook taldera jo nuen, eta jendeak oso ondo erantzun zuen: 6-7 liburu gomendatu zizkidaten. Eleberririk ardatz hartuta post bat argitaratu nuen nire blogean. Hori ikustean deitu ninduten Zikoina aldizkaritik elkarriketa egiteko, Gabonetako opariaren aitzakian. Bertatik atera zen

Irakurketa Kluba sortzeko ideia. Liburuzainarekin hizketan, aukera ikusi genuen.

Urduñan girotutako liburu asko al daude?

Bai. Landu dugun lehen liburua Francisco Panerak idatzitako *Mentir es encender fuego* izan da. Ondorengoak denon artean erabakiko ditugu.

Harritu egin al zaitu Aiaraldea hainbeste istorioren parte izateak?

Ez, banekien. Eleberririk askok aipatzen dute Urduña, horregatik arakatu nuen sarean. Toti Martínez de Lezearen pertsonaia batzuk Urduñatik pasa ziren XVI.mendearen

Egia da sorpresaren bat edo beste eraman dudala: *El huesped del balneario de Orduña* liburua ezustekoa izan zen. Oraindik irakurtzeko dut, baina nobela beltza da. *El ayalés* sagaren bigarren liburua ere Urduñan kokatua dago, bere osotasunean, gainera. Hiria oso toki inportantea izan zen mende haietan, beraz, horrek ere isla du hainbat literatura lanetan.

Zerekin egingo du topo klubera batzen denak?

Urduñan lehenbiziko aldian denez, uste dut datorren jendea harritu egingo dela ohartzean irakurtzea ez dela ekintza indibiduala. Batzuei nagikeria sortzen die liburuak irakurtzeak, norberak bakarrik egiten duelako. Ez da horrela, niretzat gauza bera da liburua irakurtzea edota seriea ikustea: istorio bat da, beste pertsona batekin komenta litekeena. Hori da, hain zuzen, asmoa: irakurketa etxetik ateratzea. Proiektu berria da, beste herrialde batzuetan egiten aspaldi hasi baziren ere. Hemen, oraintsu heldu zaio mota horretako taldeak eratzeari.

Nori zuzendutako jarduerak da?

Jende guztiari. Gehienez, 15 lagun elkartzeko muga

jarri dugu. Metodologiari dagokionez, bakoitzak bere etxean irakurri behar du alea. Hala, ondoren, komentatu egingo dugu. Ariketa polita da: denok irakurri dugu liburua bera, baina bakoitzak istorioa ezberdin bizi du. Hori ez da film edota teleailekin gertatzen, ikusi egiten duzulako. Irakurtzean zatirik handiena irudimena da: ez da inoiz liburu berdina irakurtzen, nahiz eta istorioa bera izan.

Zer nolako harrera izan du ekimenak?

Orain arte 13 lagunek eman dute izena; beraz, ordu eta erdiko iraupena izango du saioak, gutxi gorabehera. Maiztasunari dagokionez, bost astean behin elkartzeko gara. Martxoko tailerra, baina, Aste Santuan izango litzateke; horregatik astebete aurreratu dugu. Alondegia erabiliko dugu topagune moduan, liburutegira jendea ikastera ere joaten baita. Momentuz, gizon bakarra animatu da; hori izango dut erronka: mota honetako ekimenera mutil gehiago batzea. Adinari dagokionez, ni naiz gazteena, hurrengoak 44 ditu, eta nagusienak 65. Oso pozik gaude, partaideen muga 15 lagunekoa baita.

Saioak irekiak izango dira? Liburua irakurri gabe, entzutera joan al liteke?

Bai, noski. Ziur nago liburua irakurtzeko astirik izan gabe bertaratuko dela jendea. Urduñarrek, euren herriko istorioak jakin nahi badituzte posible dute agertzea. Hori bai: liburuari barrenak aterako dizkiogu, hori da arazo bakarra.

Mentir es encender fuego eleberria landu duzue lehen saioan. Urduñako zein espaziotan dago kokatuta?

Mendian. Istorioa Bizkaia eta Asturiasen arteko gerra batean oinarritua dago. Batailak Bizkaian kokatzen dira, batez ere, Gorobel mendian.

Amari abestia eskainita hasi du ibilbidea Okher rap abeslariak



Aiaraldeko hainbat txoko agertzen dira bideoan. Okher

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bakarkako lehen lana plazaratu du Oier Velezek, Okher ezizena baliatuta. Bere amaren omenez eginiko kanta da, duela urte t'erdi zendu baitzen. "Nire bizitzako emakume garrantzitsuenarekin izandako azken elkarriketa

da, beti egongo da gure bihotzetan", adierazi du musikari audioarrak.

Eskualdeko hainbat txoko azaltzen dira bideoan, Marroñoko urtegia kasu. Abestiaren oinarria konposatzeaz eta grabaketa eta nahasketaz, aldiz, Egoitz Uriarte Arbaizagoitia musikari audioarra arduratu da.

Martxoan plazaratuko du Pedro Ibarrolak hirugarren liburua

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurki argitaratuko du Pedro Ibarrolak bere hirugarren liburua. *¿Quién conoce a Tomás Landa?* izango da bere izena, eta plazaratu dituen beste bi lanen -*Vientos del norte* eta *Ratoneras de cristal*- "fusio" moduko bat izango da, idazle amurriarrak azaldu duenez.

Bi eleberrri horien zati moldatuak bilduko ditu, irakurketa errazteko helburuarekin.

Tomás Landa da Ibarrolaren liburuetako protagonista. Amurrioren giroak daude eleberririk, eta herriko hainbat pertsona eta toki azaltzen dira, eskualdeko beste hainbat txokorekin batera. Ibarrolaren asmoa da liburua martxoan aurkeztea eta ohiko tokietan salgai jartzea.

Epaimahaiaren sari berezia Siroko antzerki taldearentzat

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Epaimahaiaren sari bereziarekin itzuli da Laudioko Siroko taldea Zaragozako Antzerki Topaketa Amateurretik. Bernarda 5.0 antzezlana taularatu zuten aiaraldearrek, *La casa de Bernarda Alba* obraren bertsio librea.

"Ederra izan zen Zaragozatik bueltan bizi izan genuena", adierazi du taldeko kidea den Aitziber Diazek, "ez dago modu hobegorik astea indarberrituta hasteko eta lanean jarraitzeko".



La casa de Bernarda Alba obraren bertsio librea taularatu zuten. Aiaraldea.eus



info gaztea

Arabako Gazteen Informazio eta Dokumentazio Lurralde Zentroa




Behar duzun informazio guztia pausu batera

www.araba.eus/gazteria
 945 181 700 / 670 281 700
informazioa@gazteria.araba.eus







▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
 ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA





Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00(ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILE-APAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

ILEKO ARAZOAK?

KONTSULTA ETA DIAGNOSTIKOA
DOHAINIK, MIKROKAMARA BIDEZ

📞 ESKATU HITZORDUA 945 89 08 41

behin betiko depilazioa · sauna · solariuma



Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería



GREMIOEN

Ustekabeetarako prest egoteko makina bat baliabide Aiaraldean

Hezeguneak agertzea, hoditeria izoztea, ateko sarraila aldatu beharra... Mota horretako makina bat arazorekin topatu gaitezke gure eguneroko bizitzan. Gastu-sorpresak dira, hilabeteko plangintza ekonomikoetan aurreikusi gabekoak. Baina Aiaraldean badaude buruhauste horiei aurre egin diezaieketen profesionalak. Sektore eta alor guztietako langileak daude Aiaraldean, telefonoa eskutan, norbaitek deitzeko zain.

Elikadura, alokairua, aisialdira bidertzen dugun dirua... familia batek gastu asko izaten ditu hilero. Gastu horietako gehien zenbatekoa aurretiaz kalkulatu daitezkeen arren, badaude ere aurrez jakin ezin daitezkeenak ere. Ur-txorrota edo berogailua, leiho bateko kristala haustea, atea ixtea giltzen kopia bakarra etxean utzita... Ez dira egunerokoan gertatzen diren gauzak, baina bat-batean agertzen direnean arazo handi bihurtu daitezke.

Horregatik da garrantzitsua balizko arazo horien aurrean aurreikuspenez jokatzea. Hori dela eta, ideia ona izan daiteke eskura izatea arazo horiek konpontzeko baliabideak. Horretarako, gainera, ez da beharrezkoa eskualdetik harago joatea. Aiaraldean alor guztietako profesionalak topa ditzakegu, telefonoz hots egin da zure etxera bertaratu daitezkeenak.

ere izan daiteke soluzio bat, edota berogailua piztuta mantentzea. Hori bai, hodiak izozten badira, iturgin bati deitzea da komenigarria.

Aldaketak etxebizitzan

Egon daitezke baita ere berez matxurak ez diren baina nahitaez egin behar diren lanak. Etxera kide bat berri bat datorrenean, adibidez, gelen antolaketa berria diseinatu beharra egoten da maiz. Horretarako komeni da alor horretan aritzen diren profesionalekin kontaktuan jartzea, etxeko azpiegituri ahalik eta zuku gehien ateratzen asmatzeko.

Diru-aferrak

Konponketek diru-inbertsio handiak egin behar izatea dakarte askotan. Baina, zorionez, badaude gastu horiei aurrea hartzeko hainbat modu. "Emergentzia-zeko kutxa" bat sortzea da aukeretako bat. Hilabetean diru kopuru finko bat gordetzear datza, ustekabeko arazoei ekonomikoki aurre egin ahal izateko.

Etxeko elementuen funtzionamenduaren jarraipena egitea komenigarria izan daiteke ere. Zentzu berean, aldizkako berrikuspenak egitea baliagarria izan daiteke, etorkizunean egon daitezkeen arazoak garai detektatzea ahalbidetzen duelako.

Neguko arazoak

Urteko garai guztietan egon daitezke arazoak etxean, baina badaude urteko garai honetan neguan komunagoak diren matxurak. Oso ohikoa da, adibidez, hoditeria izoztea. Baina hainbat bide daude hori prebenitzeko. Alde batetik, komenigarria da hodiak isolatuak daudela bermatzea. Egunkaria baliatu daiteke agerian dauden hodiak hotzetik babesteko. Iturritik ura tantaka ateratzen uztea

Profesional onenak zure zerbitzura!



MARGOKETAK

PINTURA & DECORACIONES
GARGZIA

Margoketa eta apainketa orokorra
Mikrozementu aplikazioa
Pladur
Parket flotatzaile jartzea
Margoturiko papera jartzea
Fatxaden estaldurak

LAUDIO - Araba T. 689 219 826
dekogartzia@hotmail.com



ZURGINTZA

ALMACÉN PINTURAS
REGUERA

Zumalakarregi
19, behea
94 672 82 74

LAUDIO
Pol. Ind. Gardea 4
94 672 81 22

www.pinturasreguera.com

Grupo Aidema

ZURGINTZA OROKORRA

DISEINUZKO ALTZARIAK	SUKALDEAK
TAULA MOZKETAK	ARMAIRUAK
BURDINERIA	ATEAK
OSAGARRIAK	ZORUAK
ALTZARI KITA	LEIHOAK
	ESKAILERAK

Erakusketa handia, aparkalekuarekin

FABRIKATZAILEAK GARA

Murga industrialdea z/g - MURGA (Araba)
T. 945 39 92 82 M. 608 31 41 05
info@grupoaidema.com

TORRE ANAIK S.L.
ZURGINTZA - EBANISTERIA

LEIHOAK · ATEAK · PARKETA

Horma-armairuak, sukaldeak eta askotariko altzariak neurri egiten ditugu. Lakadura.

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Eras de Polanco, 1 - URDUÑA 695 940 922
info@torreanaik.com / www.torreanaik.com 695 940 923

GIDA

DEKORAZIOA

AD Interior Design
Zure etxea, gure esku

OBRA PROIEKTUAK
AKTIBITATE PROIEKTUAK
ZAHARBERRITZEAK
GREMIOEN KOORDINAKETA

680 933 794
www.ad-estudio.com

DECORACIONES LLODIO



DEKORAZIO OROKORRA
Mota guztietako alfonbrak, moketak, zoruak, gortinak, parketak eta laminatuak

Zumalakarregi 30, LAUDIO T. 94 672 02 75
oscardecora@hotmail.com

inter & deco
STUDIO

PROIEKTUAK BERRITZEAK
GREMIOAK SUKALDEAK KOMUNAK
ARMAIRUAK ATEAK OHOLTZAK
ZOKALOK ARGIZTAPENAK
OSAGARRIAK

BEHERAPENAK erakusleho aldaketa dela-eta

Zumalakarregi 11, LAUDIO
94 672 35 42 studio@inter-deco.es

ALAVA
Diseinatu, pentsatu eta gurekin dekoratu



Eraberritze lanerako beharrezko guztia: zeramika, bainugelak, sukaldeak eta eraikuntza-materiala

Arza poligonoa 15-16 LAUDIO
94 672 05 68 · 651 114 996
www.almacenesalava.com

Gorostidi *ideiak* Gi



Logelak · Gazteentzako logelak · Egongelak
Gortinak · Atsedena · Dekorazio proiektuak
Dekorazio-paperak

Paraje Usilarra 2, ARAKALDO T. 94 672 02 59
comercial@gorostidiideas.com / www.gorostidiideas.com

BERRITZEAK

ROLDAN
CONSTRUCCIONES SL

Teilatuak · Fatxadak · Berritzeak
Margoketak · Inpermeabilizatzeak

Telleria, 8 · Laudio (Araba)
946 72 57 77 / 646 47 77 50

ELEKTRIZITATEA

Electricidad Albizua, S.L.

INSTALAZIO ETA
KONPONKETA ELEKTRIKOAK

MATERIAL ELEKTRIKOAREN
SALMENTA

T. 608 87 05 13 - 945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2 · AMURRIO

SUKALDEAK

**SUKALDE ETA KOMUNEN
ALTZARIAK
GOAN**

Jose Miguel Elejalde



josemelejalde@gmail.com Lexarraga 18,
T. 670 40 03 98 AMURRIO

GARBIKETA

**AUTOZERBITZU
GARBITEGIA**

Arropa garbitzea eta lehortzea

Ibaizabal kalea 2
LAUDIO
686 53 66 79
722 39 77 45
Ugaoko dorrea 1,
UGAO
Lehendakari Agirre 5,
BASAURI



Kirola

“Runediak Euskadiko lasterketa onena izendatu gaitu”



IVAN DE LA CRUZ (LAUDIO, 1983) KIROLZALE AMORRATUA DA. DUELA LAU URTE MUGAGABE TRAIL LASTERKETA ANTOLATZEKO ABENTURARI EGIN ZION. EGUN, ERREFERENTE BILAKATU DA MARTXOAREN 3AN LAUGARREN EDIZIOA OSPATUKO DUEN TRAIL LASTERKETA.



Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Nola sortu zen Mugagabe Trail Lasterketa?

Ni betidanik izan naiz oso pertsona aktibo eta ameslaria. Zerbait buruan sartzen zaidanean buru-belarri jartzen naiz hori lortze aldera. Duela bost urte inguru lagunekin menditik korrika, beti komentatzen genion elkarri zeinen txoko ederrak genituen gure mendietan. Lasterketa bat antolatzekeo ideia buruan sartu zitzaidan orduan. Nire bikotekideari komentatu nionean nire beste erokeria bat baino ez zela esan zidan. Baina segituan jarri ginen bion artean zorakeria horri forma ematen, berak jarri zion “Mugagabe” izena lasterketari.

Nolakoak izan ziren lasterketaren hastapen horiek?

Nekezak izan ziren bai, zalantzarik gabe. Gogoan dut udaletxean lasterketa bat nire kabuz antolatu nahi nuela esan nuenean arraro begiratu nindutela, ez zegoen inolako klub edo elkarterik horren atzetik, ni baino ez, eta trail lasterketa bat antolatzekeo gogo izugarriak.

Lan handia ekarri zidan, baimen asko eskatu behar izan nituen. Jendea ohartzen ez den arren, sukalde lan asko dago lasterketa baten atzean.

Jendea kontziente da lasterketa bat antolatzeak dakarren lanaz?

Orokorrean ez, edo antolakuntzaren ehuneko oso txiki batez ohartzen da. Nirekin batera boluntario ugari aritzen dira eta haien lana ezinbestekoa da. Baimen piloa eskatu behar dira Arabako Foru Aldundian zein udalean, ibilbidea atondu eta markatu, horniketa postuak antolatu, anbulantziak lotu... Aurten 50 bat lagun arituko gara dena ondo ateratzeko lanean.

Ibilbideari buruz zer esan dezakezu?

Azken urteetako ibilbide berdina izango da aurtengoa ere, nire ustez Euskal Herrian dagoen politenatarikoa. Goikogane eta Kamaraka bitarteko bistak zein Ganekogorta eta Galarraga bitartekoak ikusgarriak dira. Badira ere ederrak bezain gogorrek diren maldak. Gure mendiei balioa ematea ere bada lasterketaren helburu nagusienetariko bat.

Parte-hartzaileentzat aholku bat: gorde indarrak Galarragatik behera egiteko, gogorrena pasa dela dirudien arren, kilometro asko daude oraindik helmugara heltzeko.

Aurtengoa 4. edizioa izango da, nolakoak izan da lasterketaren garapena?

Hazi eta hazi egin den lasterketa da Mugagabe Lasterketa. Urtez urte geroz eta jende gehiagok ematen du izena bertan. Lehenengo edizioan 130 lagunek parte hartu zuten antolatu genituen bi lasterketan, aurten aise gaintutuko ditugu 400 dortsalak. Emakumeen presentziak ere nabarmen egin du gora lasterkarien artean.

Lasterketa bera ere asko aldatu da. Lehenengo edizioa uztailean antolatu genuen. Luzerari dagokionez, 40 eta 25 kilometro zituzten lasterketek: mendi maratoi bat eta maratoi-erdi bat. Egundoko sargoria egin zuen egun hartan, ikaragarria izan zen beroa. Ondo atera bazen ere planteamendua guztiz aldatzea erabaki nuen, han eta hemen lagun eta parte-hartzaileek ematen zizkidaten aholkuei jarraituta.

Hurrengo edizioa martxora mugitu genuen. Lasterketen distantziak ere aldatu genituen: 29 eta 10 kilometro, maila guztientzat aproposak. Udan sargoria izan bagenuen, bigarren edizio hartan elurra eta hotza izan ziren protagonistak. Ibilbidea moldatu behar izan genuen elurrak gailurrak guztiz estali zituelako. Urteko goiz

hotzena izan zen hura. Hipotermiaz jota bukatu genuen batzuk, ni barne. Eguraldi kaskarraren gainera jendea oso pozik agertu zen lasterketa bukatzean, giroa ezin hobea izan zen eta klimak eman zion kutsu epiko hori guztion memorian geratu da oroitzapen positibo bezala.

Hirugarren edizioa bikain atera zen, eguraldia ere kontratatatu genuela zirudien. Neurria hartuta genion lasterketari, ez zuen ezerk huts egin eta parte-hartzaile kopuruak ere gora egin zuen. Aurten iazko marka haustertera goaz.

Zer lortu du Mugagabe lasterketak?

Mugagabe lasterketak herrian sakon errotzea lortu du, jendeak bere sentitzen du. Hori oso positiboa da, hori baita Mugagabe Lasterketaren helburua: lasterketa herriko eta parte-hartzailea izatea. Jendeak gogotsu hartzen du ekimena eta herriko egutegian finkatuta dago dagoeneko.

Runediak Euskadiko lasterketa onena izendatu gaitu eta Euskadiko Txapelketaren parte izateko eskaini digute ere. Ohorea da zalantzarik gabe, baina momentuz herrian errotzen jarraitzea da Mugagaberen helburua, lasterketaren filosofia herriko eta parte-hartzailea zabaldu eta hedatzea.

Nola ikusten duzu traila eskualdean?

Oso lan polita egin da eta egiten ari da. Amurrioko Trail Lasterketa oso ondo ari da, Euskadiko Txapelketaren parte da eta maila altua dago bertan. Urduñan ere gogotsu ari dira lasterketak antolatzen dabiltzan gazteak, iaz Mendi Maratoia antolatu zuten eta bikain atera zen.

Eskualdeko argazkitik harago, nik uste hemendik bost urtera edo, lasterketa asko desagertuko direla. Geroz eta traba gehiago daude hauek antolatzekeo. Ilusioa ere ezinbesteko osagaia da.

TXIRRINDULARITZA

Aiarabike Trek Electroalavesa, denboraldi berriari "anbizio gehiagorekin" heltzeko prest



Lezamako Bideko jatetxean aurkeztu zuten taldea. Aiarabike Trek Electroalavesa

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Otsailaren 17an aurkeztu zen Aiarabike Trek Electroalavesa txirrindulari taldea Lezamako Bideko jatetxean.

Duela urtebete sortu zen taldea, eta indarberriturik hasiko du denboraldi berria. "Txirrindulari gehiago batu zaizkigu, eta anbizio gehiago ditugu horregatik", azaldu dute Electro Bike Alavesako bozeramaileek. Datorren larunbatean -otsailak 24- izango dute lehenengo erronka, Zumaiako Lehendakari Torneoan. Horrez gain, hainbat biretan ere parte hartuko dute, Montluçonen -Frantzia- maiatzean, besteak beste.

Elite mailako hiru txirrindulari ditu taldeak: Aitor Rey -Laudio-, Xabier Ortuzar -Gernika- eta Cristian Plagaro -Sestao-. 23 urtetik beherakoen kategorian, aldiz, 13 kirolari daude: Enrique Garcia -Burgos-, Yerai Valdivia -Gasteiz-, Oihan Larreina -Gasteiz-, Ivan Alonso -Legutio-, Angel Coterillo -Kantabria-, Julen Solaun -Laudio-, Aingeru Mtz. De Albeniz -Agurain-, Fran Miranda -Aranda de Duero-, Aner Moreno -Amurrio-, Oier Aldama -Amurrio-, Endika Lazaro -Burgos-, Rodrigo Alvarez -Burgos- eta Alvaro Garcia -Valentzia-.

Horrez gain, taldearen beste alorretan arituko diren pertsonak aurkeztu zituzten ere larun-

bateko ekitaldian: Iñigo Urtaran -Kirol zuzendaria-, Iñaki Llano -Presidentea eta kirol-laguntzailea-, Ivan Sanchez -Kirol-laguntzailea-, Maider Mayoral -Fisioterapeuta-, Koke Santamaria -Kirol-laguntzailea-, Joseba Garcia -Mekaniko-biomekanikoa- eta Monica G. Encinillas -Komunikazio arduraduna-.

Babesle ugari

Aiarabike, Electroalavesa eta Trek enpresak dira proiektuaren babesleak. I-SAI, SALTO eta Spiuken sponsorrak ditu taldeak, eta Kirolarabaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Laudioko Udaleren finantziarioa eta Infisport, Tm Grupo Inmobiliario eta Bidekoren laguntza jasotzen ditu.

TAEKWONDO

Urrezko bost domina Euskadiko Helduen Teknika Txapelketan



Laudioko zortzi kirolarik parte hartu zuten norgehiagokan. Olga Gutierrez

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Laudioko zortzi kirolarik hartu zuten parte Euskadiko Helduen Taekwondo Teknika Txapelketan eta emaitza esanguratsuak erdietsi zituzten. "Poomsae" atalean urrezko eta brontzezko bina domina eta

zilarrezko bat eskuratu zituzten. "Freestyle" kategorian, aldiz, urrezko hiru domina lortu zituzten laudioarrek. "Balorzio oso positiboa da", azaldu du Laudioko Klubeko Olga Gutierrezek. Espainiako hurrengo norgehiagokara begira daude orain, apiril-maiatzan inguruan egingo baita.

IBILALDIA

Laudio eta Amurrio lotuko dituzte, indarkeria matxistaren aurka



Nerbioiko Parke Linealean zehar burutuko da martxa. Aiaraldea.eus

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Lehiakortasun eza ardatz, Laudioko Alzarrate eta Amurrioko Kaskagorri futbol taldeek emakumeen berdintasuna aldarrikatzeko eta genero indarkeriaren kontra, ibilaldi arautua antolatuko dute martxoaren 10ean.

Ibilaldiak Laudio eta Amurrio herrietako plazak lotuko ditu joan itzulizko ibilbidean Nerbioi Ibaiaren parke lineala baliatuta. 10:00etan abiatuko da, bai Lau-

diotik eta bai Amurriotik, bi norabideetan, eta Luiaondon jan-edana banatuko dute. Izen emateak 5 euroko kostua izango du eta egunerako propio diseinatutako elastiko teknikoak banatuko dituzte.

Guztiak irabazle

Antolatzaileek ez dute ekimen lehiakorrik nahi, horregatik ez dituzte helmugara heltzen diren lehenengoak sarituko. Tarteko denborek izango dute saria, ibilbidea osatzeko batez besteko denborak kontuan izanik.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin


Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

Kirola

TXIRRINDULARITZA

140 txirrindulari gazte errepidera Aiarako Biran



Aiara Txirrindulari Elkarteko gazteak izango dira eskualdeko ordezkariak biran. A.T.E.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Martxoaren 3tik martxoaren 18ra luzatuko da 2018ko Aiara Bira. Kadete mailako eskualdeko frogarik garrantzitsuena da eta kategoria horretako denboraldiari hasiera ematen dio. Aurtengoa biraren 29. edizioa izango da.

Amurrio, Okondo, Aiara, Laudio eta Artziniegako txirrindulari elkarteek elkarlanean antolatuko dute bira. Antolatzaileak "oso pozik" azaldu dira eskualdeko talde guztiak batzeko aukera izateagatik.

Iaz bezala, aurtengo edizioak ere bost lasterketa izango ditu, elkarte bakoitzak bat antolatzeko ardura izango du eta azpiegitura elkarlanean kudeatuko dute. Gauzak horrela, martxoaren 3an hasiko da 2018ko Aiara Bira Laudioko lasterketarekin. Gainontzeko datak hurrengoak dira: Martxoak 4 Amurrio, martxoak 10 Artziniega eta martxoak 17 Arespalditza. Martxoaren 18an bukatuko da bira, Okondoko frogan.

Aurreikuspenak onak dira, 140 parte-hartzaile baino gehiago espero dituzte. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa-

etik etorriko dira taldeak. Euskal Herrikanpoko ordezkariak ere izango dira bertan, Zaragoza eta Valladolideko bi taldek asistentzia konfirmatu baitute.

Aiaraldeko ordezkariak

Kadete mailan Aiara Txirrindulari Elkarteko Opticas-Luyando Ganzedo taldea da eskualdeko ordezkari bakarra. Aurreko edizioan taldeko sailkapen nagusian lehenengo postua eskuratu zuen talde aiararrak. Antolakuntzatik oso baikor agertu dira Aiarako txirrindulari gazteen ekarpenari dagokionez.

DUATLOIA

Berlangako duatloian bigarren postua lortu du Ibone Sanchezek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bigarren postua lortu zuen Ibone Sanchezek Berlangako -Extremadura- duatloian, otsailaren 17an. Sara Löehrren atzetik heldu zen helmugara korrikalari audioarra. Azkenengo bi asteak gripeak jota pasa ditu Sanchezek: "aurreko astean ezin izan nuen Amurrioko krosean parte hartu, oso ahul nengoen. Duatloian sentsazioak korrikan nahiko onak izan ziren. Bizikletan pixka bat gehiago kostatu zitzaidan, baina orokorrean, gus-tura bukatu nuen".



Europako Kopan lehiatuko da Sanchez. Jose Carlos Cordovilla

Orain martxoaren 10 eta 11ko asteburura begira dago Sanchez, Boirora -Galizia- bertaratu baita Espainiako Talde-

kako Duatloi Txapelketan parte hartzera. Martxoaren 18an, aldiz, Europako Kopan parte hartuko du, Kanaria Uharteetan.

KICK BOXING

Eskualdeko bi txapelkun eta txapelkunorde bat Euskadiko lehiaketan



Ezkerretik hasita, Jagoba Pazos, Asier Arza eta Asier Ispizua. Carmelo Otaola

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iraganotsailaren 18an jokatu zen Euskadiko Kick Boxing Txapelketa Bilboko La Casillan eta eskualdeko zenbait borrokalarik parte hartu zuten proban, emaitza onak eskuratu, gainera.

Horrela, Asier Ispizua audioirrarrezko domina eraman zuen 60 kilo azpiko kategorian. Hajime klubean ere dagoen bere kidea, Jagoba Pazos, txapelkunorde izan zen 63,5 kilo azpiko atalean.

Aratz Garmendia, Okondon bizi den Kuraia gimnasioko borrokalaria, txapelkun izan zen baita ere. Otsailaren 11n, K-1ean lortu zuen gauza bera. Horrez gain, protago-

nismo handia izan zuen ETB-2ko *A bocados* telebista saioan, egun berean. Chock Deek eta Cape Team klubek, aldiz, erabaki zuten Euskadiko Kick Boxing lehiaketan ez aritzea. Izan ere, Aiara Fighters borrokaldia antolatu zuten otsailaren 10ean eta atsedena behar zuten.

Edonola ere, Chock Dee taldeko kideak urtarilaren 21ean egon ziren Euskadiko Kick Light Txapelketan eta bi urrezko domina eskuratu zituzten Ruben Dominguezek eta Aitor Ibarluzeak. 10 urteko bi kide, Amets eta Anartz, bigarren izan ziren. Blanco Pikatza anai-arrebek ere ez zuten parte hartu lehiaketan. Izan ere, Izaro Blanco Espainiako Selekzioarekin egonda Madrilan.

ESKALADA

Pareta eta presa berriak ditu Orozkoko kiroldegiko boulderrak



Pareta berria jarri diote boulderrari. Orozkoko Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hobekuntza ugari egin ditu Orozkoko Udalak kiroldegiko boulderrak. Eskaladarako horma berri

bat jarri eta pareta zaharreko presak berriak dituzte. 14.226 euro baliatu ditu tokiko erakundeak hori egiteko.

Horrez gain, bi bizikleta eliptiko berri ere jarriko dituzte.

Herriko plaza



Ainhoa

Zorionak Ainhoa!!! Segi bazterrak alaitzen zure dantzekin! 11 sanba-musu potolo!

Kafelintxi Komandoa



Alfredo

Zorionak eta musu handi bat familia osoaren partez! Bihotzean beti eta laster gure artean!

Familia



Luken

Ondo pasa zure bederatzigarren urtebetetzean. Zorionak Urtzi, amatu eta aitatzuren partez. Muxutxu asko!

Urtzi, amatu eta aitatzu



Manex

Zorionak Manex!!! Gure 4 urteko gizontxo handitzen doa!!! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!!!

Madalen, aitatzu eta amatu



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera martxoaren 9a baino lehen.

Denborapasak

	Gauzka	Eraikuntza	Sasjakintza	Akaba
	Ipar Adrikakoak	Norabait	Bokal erreprokatus	
Kimatu				
Mesodez, arreat			Iti, hitz elurtzetan	
			Hitzairena	
Surtaitu	Oparitua	DEITURA		
IZENA	Ekitiko ahalmen	Fruitu mota		
		Guruso arra		Bi bokal
		Bokala		
Dardara			Neukoko	
Ogi egilea			Nagusai	
		Banu, baina hari		
		Du, baina niri		
Imanen ta-sunetz jabetu			Kango, landa	Jainko egitoarra
Zalaniza pariskula			Zeparen ardian	
	Doimu, ahaire			Oinarriko edari
	Bokala			Bokal mehea
Momentu		Eitza		

Abokatu laudioarra

ERRAZA

		8			5
	3	5		7	8
		4		9	3
9	5	7	8	4	2
		6			3
7	8		4	2	
3	9	4	8	6	2
4			7		6
2	6		3	9	5

3	7	5			
	1			3	5
7			2	9	6
2					7
		9	6		
8	6		4	3	5
		5	2	6	
	2	7	4	8	
7	6	3	2		

ZAILA

	4	1			5
		3	2		
1					8
	4		9		
2		3	5	6	
5					3
4	8	5			7
	7			9	2
6			4	7	3

9		5	1		3
5		3		2	
	8		2		
7				5	8
	9	6			3
			8		9
3	5	7	6		
		1			
			3		8

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

**Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak**

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en

FUNERARIA

L A R R A Z

E H O R Z T E T X E A


Zozketa

ARTIÑANO ETXEAN GAU BAT IGARO NAHI?




Mota honetako planez gozatu nahi? Parte hartu www.aiaraldea.eus web web atariko asteroko zozketetan.

Aiaraldea txiki



PUZZLEa

Zein da puzzlea osatzeko behar dugun pieza?



Landare engainaria

Begira iezaiozu landare honi. Bonsai eder eta apaina dirudi, ezta? Baina, erne! Landare karniborua da, eta gainera, ikaragarria. Ahoa zabaltzen duen bakoitzean zomorroren bat jaten du... Non ote duen ahoa? Hain zuzen, hortxe goian, hosto txikitxo horien gainean. Marraztuko al diozu zuk?






Ordena itzazu men

Ever
8.848

Mont Blanc
4.807 metro




Emaitzak



diok garaieraren arabera. Idatzi bakoitzari dagokion tokia, beheko borobiletan.

HANDITIK TXIKIRA



ELURRETAN

Bai dibertigarria elurra, ezta? Zoritxarrez, arriskurik ere badu. Hemen jolasean ari den bat, adibidez, hoztu eta gaixotu egingo da. Zein ote da? Ahoa zabalik du, eta lepoan bufanda. Badu zerbait horia, baina gorririk ez, ezta ubelik ere. Badu zerbait urdina, baina ez dira prakak. Eskuak libre dituen arren, badu elur bola bat menpean.



Kontra

Aiaraldetik mundura

Adam Cohn



David del Rio Carrero

JAIOTERRIA
LAUDIO (1991)

EGONDAKO TOKIA
GHANA

BIDAIAREN XEDEA
ESPAINIAKO ENBAXADAN LAN EGITEKO BEKA

GHANA



DESKRIBAPENA

Erresuma Batuen kolonia izan zen herrialdea 1960. urtera arte. Hurrengo urteak ezegonkorrak izan ziren, bi estatu kolpe egon baitziren. 1992. urtean ezarri zen gaur egun indarrean dagoen konstituzioa.

AZALERA

238.533 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

24 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Ingelesa -tokiko hainbat hizkuntza ere hitz egiten diren arren-.

BITXIKERIAK

“Urrezko kostaldea” gisa ezagutzen zuten zonaldea Europako esploratzaileek, urre meatze ugari zituelako.

“Txipa aldatu behar dute GKEk, kolonialismo berria bihurtu ez daitezenean”

Urtebete eman zenuen Ghanan. Nolatan?

Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen duen BEINT programarekin joan nintzen Ghanara. Azterketak pasa eta zorte izugarria izanda esango nuke nik, ez nuelako espero eta Ghanari buruz gutxi nekielako, baina atzera begirata emaitza ezin hobea izan dela esan dezaket.

Oso ezberdina da bertako eta hemengo bizimodua? Zertan?

Jendeak uste du Afrika ezberdina dela pobreziazatik edo baliabide faltagatik. Baina gehien harritzen zaituena guztiz ezberdina den kultura bat ikustea da, zurearekin zerikusirik ez duena. Oinarrizko aldaketa bat da, askoz harago doana. Alaitasuna, bizitzeko modua, baloratzen dena eta baloratzen ez dena... planetako lurralde abegikorrena izan daiteke, beti dago norbait zu laguntzeko prest. Behin jeep ba-

tean gindoazen eta arean harripatuta geratu ginen. Herri erdia atera zen gu palekin ateratzera.

Zer da gehien harritu zintuen?

Mundua zein ezberdin eta handia den ikustea. Bizitzeko mila modu daude. Batzuetan Mendebaldean bizi garenak munduaren zilborra gaila uste dugu, gu baino ez gaila existitzen eta gainontzekoek dena gaizki egiten dutela. Afrikak frogatzen dizu hori ez dela egia, mila kultura eta bizimodu daudela, zurea bezainbeste edo gehiago balio dutenak.

Espainiako Enbaxadan egin zenuen lan. Zertan zetzan zure lana?

Zehazki bulego ekonomiko-komertzialean lan egin nuen, enbaxadan txertatua dagoen erakunde batean, baina era independente batean funtziona-

tzen duena. Nire lana nagusiki hemengo enpresei laguntza eskaintzea zen, enpresa ertain eta txikiei batez ere. Han egoteko baliabideak ez dituztenez gure ezagutza oso baliagarria suertatzen zaie.

Afrika kontinente pobrea dela esan ohi da.

Txirotasuna edonon ikusi dezakezu. Semaforo guztiak umez beteak daude, saltzen edo eskean dabiltzala. Accra-hiriburua txabola-auzoz beteta dago, eta ez du estolderiarik.

Pobrezia zoazen tokira zoazela nabari dezakezu, baina min gehiago egiten du ezberdintasun horiek zure azalean sentitzen dituzunean. Zuriok eta klase ertain-altuek baino ez ditugu erosketak supermerkatuetan egiten. Askok pentsarazten dizu zure eguneroko erosketan beste baten hilabete bateko soldata baino gehiago gastatzeak.

Zer egin beharko litzateke horri buelta emateko?

Ez dago erantzun errazik. Gehiago entzun beharko genituzke garapen bidean dauden herrialdeak. Dambisa Moyo ekonomialariak dioten moduan, ez da nahikoa herrialde horiek jendez eta diruz betetzea, euren bide propioa hautatzen utzi behar zaie, oztopoak jarri gabe.

Oxfam erakundearen eskandaluak erdigunean jarri du Gobernu Kanpoko Erakundeek garapen bidean dauden herrialdeetan egiten duten lana. Aipatu duzun kritika aplikagarria da eragile horientzat?

Noski, garapenerako laguntzaren mendebaldeko paradigma osoari, eta baita urtero bolutario gisa bertaratzen diren gazteei ere. Gauza on asko egiten dira, baina txipa aldatu beharra dago, bestela kolonialismo berri bat izatera mugatzen direlako.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

